<table>
<tr><th colspan="7">A EREMUA - IKASGELA BATEN KOHESIOA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK</th></tr>
<tr><td colspan="4">TALDEA:</td><td colspan="3">DATA:</td></tr>
<tr><th></th><th>GERTATZEN DA? (BAI/EZ)</th><th>IZENAK</th><th>LEHENTASUNA (1/2/3)</th><th>PROPOSATURIKO DINAMIKA</th><th>NON</th><th>NOIZ</th></tr>
<tr><td colspan="7">1.1 Erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea, eztabaida eta adostasun maila</td></tr>
<tr><td>Ikasleen parte-hartze maila desberdina da:<br><br>Batzuk oso parte hartzaileak dira,:<br>● Tarteka esku-hartzeak monopolizatu eta beren ikuspuntua inposatu ere egiten dituzte<br>● Gelakideen kohesioa bultzatzen dute<br><br>Beste batzuk, berriz, itxiagoak dira eta asko kostatzen zaie parte hartzea<br><br>Nolakoa da gainerakoen ikuspuntua</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="7">1.2 Taldearen barruan elkarreragina, elkar ezagutzea eta distentsio maila</td></tr>
<tr><td>Harremanak ez dira beti errazak ikasleen artean:<br><br>Batzuk marjinatuta, baztertuta eta behar adina baloratu gabe sentitzen dira..<br><br>Gutxi ezagutzen dute elkar<br><br>Tirabirarik ba al dago taldeko ikasleen artean?</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

| 1.3 Inklusio prozesu eta elkar ezagutza maila | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasle arruntek eta urritasunen bat dutenek nolako kontaktua dute elkarrekin?<br><br>Lehenengoek apartatu egiten dituzte bigarrenak, eta batzuetan iseka ere egiten diete?<br><br>Ikasleek bere burua ezagutzen dute?<br><br>Besteen mugak ezagutzen dituzte (fisikoak, adimenekoak, harremanetakoak…) | | | | | | |
| **1.4 Talde lanaren garrantzia eta eraginkortasun maila** | | | | | | |
| Ikasleen artean:<br>Jarrera indibidualistak (bakoitzak berea egiten du) edota lehiakorrak (klaseko hoberena izateko norgehiagokan jarduten dute) gailentzen dira?<br><br>Batzuek taldean lan egitea atsegin dute besteen lanaz aprobetxatzeko?<br><br>Beste batzuek ez dute nahi izaten, inor beren lanaz aprobetxatzerik nahi ez dutelako?<br><br>Batzuek bakarka lan egitea nahiago dute, taldean lan egitea baino? | | | | | | |

| 1.5 Ikasleek modu kooperatiboan aritze maila | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oro har, ikasleek ez dute talde-lana baloratzen?<br><br>Ez diote garrantzirik ematen elkartasunari, elkarri laguntzeari eta desberdintasunen errespetuari?<br><br>Zaila da gelakideen ikasketaren erantzule sentiaraztea?<br><br>Zaila da lortzea arlo guztietako edukiak ikasten elkarri lagun diezaioten? | | | | | | |